

NOIZ IZANGO OTE EUSKARAREN TXANDA?

«Euskal herriko herritar guztiek dute hizkuntza ofizialak, bai hitzez eta bai idatziz ere ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea. Eta Herri Agintariek eskubide hori garantizatu egingo dute» (5. Art.).

«Edozein herritarrek eskubidea du Administrazio Publikoarekin dituen harremanak euskaraz zein gaztelaniaz edukitzeko eta bere aukerako hizkuntza ofizialean erantzuna jasotzeko» (6. Art.).

«Administrazio Publikoan lan egiten duten langileak poliki-poliki euskalduntzeko neurriak hartu beharko dira. Agintari Publikoek erabakiko dute zein lanposturako izango den beharrezko bi hizkuntzak jakitea eta beste lanpostu batzuez jabetu ahal izateko, beste merezimendu batzuren artean, euskara eta gaztelaniaren ezagupena hartuko da kontutan» (14. Art.).

Honelako eta antzerako zenbait gauza jakingarri agiri zaizkigu 1982.eko Azaroaren 24an argitara eman zen Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko Legean. Ez da beraz, atzo goizeko lege atera berria. Makina bat eguzki, haize, euri eta elur egin du ordutik hona. Ezer egiteko aldi nahiko luzea benetan! Arrietsak utzi eta begira diezaiogun bizitzako izateari:

direla bost urte eman zen argitara Euskararen Legea

Ezin ukatu ordutik hona zerbait egin denik. Besterik behar genuen! Euskarari, besterik ez bada ere, ate-zirristuak zabaldu

zaizkio gizarteko zenbait alorretan. Badirudi, itxuraz bederen, zerbait aldatu dela euskarak Erakunde Publikoetan zuen lehengo egoera.

Leku pixka bat egin zaio, bai, hainbatetan Administrazio barneko idantzizko zenbait harremanetan, alor garrantzitsuak oraindik larri gorrian ageri bazaizkigu ere. Dena dela eginak eginik badira ere:

gaztelania dugu gaurkoz jaun eta jabe Administrazioan

Eztabaida batzu ere izan dira postu publikoetarako oposaketan euskarari eman nahi izan zaion balorazioa dela eta.

Zenbait agerpen eta manifestazio izan dira Euskal Herrian zehar egoera zuzentzeko eskatuz, benetako orduan eskari guzti horiei jaramonik egin ez bazaie ere.

Administrazioako makineriak lehengoan jarraitzen du, euskaldunoi zor zaizkigun hizkuntz eskubiderik txikienak ere lotsagabeki ukatuz. Ondorioz, gaurkoz, zoritxarrez:

gaztelania bakarrik Euskal Herrian derrigorrezko hizkuntza

Zer nolako urtasak eman dira, eman ere, euskararen Legea betetzeaz gainera, lege horren bererazle izan beharko lukeen Erakunde Publikoetan, hain zuzen ere, Eusko Jaurlaritzan, Foru Diputazioetan, Udaletan?

Azkenaldi honetan, Komunitate Autonomikoan era askotako eraikuntzak egin izan dira bazterretan. Hainbatetan, gure inguruek beste itxura bat hartu dute. Aurrerakada handiak nabari dira edonon. Benetan poztekoa!

Beharrezkoa dugu, bai, izan ere, errepideak, kaleak, monumentuak... berriztatzea edo eta eraberritzea. Gure artean, itxura batetan behintzat, hainbat gauza aldatu diren arren,

euskarak lehengo antzeko egoera larrian dirau. Hilzorian!

Aipaturiko herrilan guzti horiek aurrekontu neurtezinak bide direla aurrera atera izan badira ere, ezer gutxitarako balio-ko digute, gure Herriaren nortasun-ezaugarriak nabariena eta bereizgarriena -gure hizkuntza- hilzorian ikusirik, hain ahalegin txikiak egiten baditugu.

Noiz helduko zaio, bada, txanda euskarari? Noiz hasiko dira Erakunde Publikoek euskaldunon eskubideak aitortzeaz gainera egiatan betetzen eta beteerazten? Hala itxurak betetzeko bakarrik egin ote zen lege hura?

Euskararen aldeko Legea argitaratu zenetik bost urte luze igaron baldin badira ere oso gutxi aldatu da gure arteko Administrazioa. Barruko harreman guztiak gaztelaniaz egiten dira eta kanpora begira ezer gutxi eskaintzen da hurbiltzen diren herritarrei zerbitzuak euskaraz erosotasunez eskaintzeko. Beraz,

gaztelaniaz jarraitzen du ia hizkuntza bakarra izaten

Bai Eusko Jarlaritzan (bere agintaritzapeko diren administrazio-adar gehienetan, ertzainak eta osasun-etxeak barne direlarik, noski) bai Foru Aldundietan (tokian tokiko eta Sail bakar batzuren salbuespen) bai udal gehienetan oraindik gaztelania da nagusi.

Ezan bezala, eman dira idatzi-mailan halako urrats batzu baina itxura hutsetan geratzen dira. Euskaldunok bertara hurbiltzean ez dugu benetako erantzun euskaldunik jasoko zuzeneko harremanetan, behintzat. Oraindik, gehienetan,

euskarak ez du zor zaion lekurik ahozko harremanetan

Gehiago oraindik. Oraindik ez dira bete erakunde publiko gehienetan euskararen legeko araurik nagusienak. Egin dira, bai, unean uneko ipingi jartzeak, baina ia besterik ez. Ez da benetako urratsik eman Administrazioko zerbitzuak (salbuespen urri batzu salbuespen direla) euskaraz eskaintzeko.

Gehienetan, itzultzaile batzu hartuz estali nahi izan da ho-

rren lotsa, baina, gogoz kontra edo nahiera handirik gabe egiten direnetan gertatu ohi den bezala, nonnahi eta noiznahai legearen eskakizunak urratuz eta bertako esanei entzun gogor eginez.

Euskaldunok, geure etxean bizi bagara ere (Euskal Herrian euskara egiteko eskubiderik baldin badugu, bahintzat) sarri ikusten ditugu geure buruak zapalduta, gutxietsita, baztertuta. Besterik egin ezinik,

gaztelania erabiltzera beharturik aurkitzen gara.

Euskara erabiltzea Administrazioari eskatzen diegunean, sarri baino sarriago, aurreko langilearengan aurpegi makurra ikus-teaz gainera hainbat asti alperrik galtzera behartzen gaituzte, hurrengo egunean etorri beharra sortzen ez denean, jakina!

Euskararen aldeko lege eta guzti, oso gutxi jaramon egiten diolako edo eta Agintariek neurri egokiak jarri ez dituztelako (harritzekoa benetan agintaritza abertzaleen eskutan izan ondoren) hor aritu behar dugu behin eta berriro euskaraz erantzuteko eskatzen eta horrelakoetan! Eskubiderik ez balu bezala! Gaurkoz, zenbait tokitan (ia denetan ez ezateagatik) administrazioerekiko harremanak euskara hutsez egin nahi dituenak

oraindik behin eta berriro euskara esijitzen jarraitu behar

Eta gero, lotsagabekeriarik gorriena erabiliz, euskaldunoi geuri leporatu, egungo euskararen atzerakada, bizitzako harremantan gutxiegi erabiltzen dugula eta. Baliteke noizbait (behar bada maizegi, ezta?) hala gertatzea, baina horrek ez die Administrazioaren ardura duten Agintariei euren betebeharrari uko egiteko eskubiderik ematen. Nork bere erantzukizunari egin behar dio aurre.

Bedakigu, bai, euskara ez dela galduko «ez dakitenek ez ikasteagatik, dakigunok ez egiteagatik» baizik. Konforme! Baina, era berean, egia biribila da, baita ere, ez duela iraungo ghetto bat den artean, eguneroko bizitzan nonnahi eta beti erabili ezin

den artean. Ezer gutzi lortuko da Euskaldunoi euskara bizitza une eta bazter guztietan erabiltzeko eskubidea aitortzen ez zai-
gun artean!

Noiz euskaraz zerbitzu guztiak maila guztietan?

Euskararen Legea onartu zenetik hainbesteko aldia iraga bada ere, oso gutxi aurreratu dela Administrazio barruko lengi-
legoa euskalduntzen aitortu behar!

Itxura batetan eman dira, bai, ageriko urrats batzu, inprimaki eta beste zenbait idazki elebidun eginez (betetzeko hutsu-
neak izan eta betebeharra duten gaztelaniaz beteta jasotzen ditugunak) edo eta Eusko Jaurlaritzako eta Foru Lurraldeetako Buletin Ofizialak euskaratuz. Hori guzti hori hala bada ere, oso gutxi aurreratu da euskararen ahozko erabileran.

Beste alor ezberdinetako arazo ugarietara aurre egiteko, aldezturik ikerketa eta egitasmo zehatzak egin izaten diren artean, euskararen egoera larriari aurpegi egiteko orduan ez da inon plangintza argirik ageri. Horregatik, euskarari dagokionean zera esan dezakegu:

Inork ez daki zer lortu nahi den gerora ez eta nondik norantz dihardugun

Hitzak haizeak daramatza. Asmoak asmo huts geratzen dira sarritan! Organigrametan euskarari lekua egitea ezer gutxitarako izango da, plangintza egokirik eta iraunkorrik egiten ez den artean.

Gutxiago, oraindik, jakina, egiteko benetako asmorik ez baldin badago! Nik, behintzat, aurrerantzean ez dut hitz goxoe-
tan sinetsiko, hainbatetan goxo-goxoak direlako belarrietan atsegingarri baldin bazaizkit ere! Eroapenak eta itxaropenak ere badituzte beren mugak!

Orain arte, arazo honi (orokorrean, bederen) itzultzaileok izendatuz eman nahi izan zaio irtenbidea. Eta, horrela, gehienez, itxurak betetzea lortu izan da. Zer esanik ez, langile euskaldunen bidez lortuko da, bakarrik, Administrazioa euskalduntzea. Hain

zuzen ere, administrazio euskalduna lortu nahi baldin bada, ezinbesteko baldintza da bertako langile euskaldunen kopurua ugartzea zein langile horiek lanpostuetan egokiro banaturik jartzea.

Eta horretarako bi bide baino ez daude bertako langilegoa euskalduntzea zein alfabetatzea edo eta langilego berri euskaldunak eskuratzea. Agintariek, orain arte, zoritxarrez, zenbait arrazoi (benetakoak ote, gero?) tarteko direla, ez diote ez batari ez eta besteari behar adineko erantzunik eman, ipingi hutsetan arituz.

Noiz arte, baina, euskara egoera jasanezin honetan?

Kostu andiko zerbait dela? Nik ez dut horrelakorik ukatzen! Gaztelania ere, diru ugari erabiliz eta plangintza zorrotz eta zehatzak eginik sartu izan digute. Historian zehar Euskal Herriari oso zama astun egin zaio kanpotitako erasoaldi guztien aurka jokatzeko euskaldun eta Euskal Herri izaten irautea. Hori begibistakoa da! Euskara berreskuratu eta Euskal Herri euskalduna egiteak ahalegin handia eskatuko digu, nonbait!

Hala ere, hori dugu gure hautabide bakarra. Herri euskaldun jarraitu bahi dugun abertzaleontzat, behintzat! Euskara, bizitzako gure guztietarako hizkuntz baliagarri bihurtu nahi dugunontzat! Egun osoan eta une eta toki guztietan euskaraz bizi nahi dugunontzat!

Euskarari Administrazio Publikoan leku ugari eta egokiagorik egiten ez bazaio,

etsaiak etxean bertan sarturik ditugula aitortu behar

Ez da gaur egun nahiko abertzale zintzo izateko inoiz «gora Euskadi askatua» edo eta «Euskadi Euskaldunon Aberria da» eta antzerakoak aldarrikatzea, eguneroko bizitzan gure ezaugarriarik nabarienari -euskarari- ateak ixten badizkiogu edo eta euskadun denari etxean bertan -euskara erabiltzeko bideak ukatuz- zor zaion begirunea ukatzen bazio.

Nik, behintzat, euskaldun bizi nahi dut eta ez dut gogoko

euskararik gabeko Euskal Herri askaturik, azal hutsezko askatasun faltsua baino ez nuke izango eta. Hizkuntz alorrean zapalduarik jarraituko nuke!

Halako zerbaitetarantz garamatza Administrazioa euskalduntzeko neurri egokiak lehenbaitlehen ez hartzeak. Nire uste apaletan.

euskarak ezingo du iraun Administrazioa euskaldundu gabe

Ez da hori, zoritxarrez, euskararen iraupena ziurtatzeko nahiko izango, baina, hori gabe ere ez du bururik altxatuko. Herrenka izango delarik, ezin izango dio gizarte berriztatu honen abiada etengabeari jarraitu.

Bestalde, badira oraindik gure inguruetan (halakoak aintzina kontuak zirela uste izan arren zenbait) diskriminaziorik ez egitearen atxakiaz gaztelaniaren aspaldidaniko zapalkuntza etengabeki iraunerazi nahi dutenak ere.

Oraintsu, DEIA-ko ohizko idazle batek, egungo langabazien egoera gorria atxakitzat hartuz lanpostuetarako euskara baloratzearen aurka idazten zuen. Nola, baina, hala jokatzu euskaldunon eskubideak onartu? Hala, ez ote dugu euskaldunok (erdaldunek duten bezelaxe) euskaraz aritzeko, bizitzeko eskubiderik?

Hala jokatzu ezin izango genuke eskubiderik gizarteko arazo sozial guztiak konpondu arte. Eta, jakina, itxaroten dihardugun artean euskara hiltzen bazaigu, hainbat hobe, ezta?

Noiz arte itxaron behar ote euskarak eta euskaldunok?

Gaur berton (1987-X-29) ETB-ko zuzendariari Eusko Legebiltzarrean, partidu ezberdinek leporatutako kritika zorrotzak aipatuz Correo Español-en (euskaldunon etsairik handienetarikoa izan arren Euskal Herrian zehar hain ugari irakurria den egunerokoan) «COPA» izenordepean idazten duen azterlari politikoak, ETB-ek daukan ikuslego urria ugaritzeko eta, era be-

rean, Komunitate Autonomiko barruko jende gehiengoari erantzuteko, gaztelaniari lekua eginez, elebidun bihurtu beharko lukeela defendatzen du inolazko lotsarik gabe. Jakina, Madrid aldean hain ospe handia duen horrek ez die halakorik inoiz eskatu Euskal Herrian ere ikusten diren beste estatuaren eskupeko Telebista kateei.

Eta guzti hori, inolazko lotsarik gabe, Europa barruan gara eta lanpostuetarako ingelesa, frantsesa eta abar jakitea merezimendu dela aitortzen duten artean. Euskara, nonbait, sukaldeko hizkuntza, lagunaren artean erabiltzekoa, Administrazioan zain Komunikabideetan lekurik merezi ez duena dugu. Hauek honela,

bizirik eta erasokor dirautela, euskararen etsaiek esan behar

Administrazioaren barruko dinamikak, gainera, mendeetan zeharkako inertziak eraginda diharduenez, euskarari oztupoak ezartzera jo ohi du. Oso leku gutxitan jasoko dituzu lehen hitzak euskaraz eta hala gertatuz ere, sarri askotan berehala konturatzeko zara harrera egin dizun funtzionaria ez dela elkarrizketa euskaraz jarraitzeko gauza. Egia esan, gogor egiten da halako kasuetan euskadunen bati dei diezaiola eskatzea!

Dena den, alor honetan egiten siren protestek emaitza onak izan ohi dituztela, gehienetan, ikusi izan dut. Administrazioa, barrutik bultzatuta eginda, euskaldundu nahi dugun langileoi lagungarri gertatzen zaizkigu jendearen kezak. Zenbait zerbitzutan euskarari lekua egitea, Agintarien gogoei eta plangintzei baino gehiago, inoiz eten gabe, beti euskaraz jokatu izan duten zenbaiti zor zaie.

Euskarak bizirik iraun dezan guztion bultzada behar du

Begira biezaio, beraz, nor bere buruari zenbaiteraino saiatzeko den euskararen alde eta eska biezaio etengabeki, inoiz atzera egin gabe, Administrazio Publikoari (borondatez ematen ez digunez, esijitzen jarraitu beharko dugu, guztiori tamalgarria

eta iraingarria baldin bada ere) berarekin dituen harremanetan «idatziz» zein «ahoz» euskara erabiltzea, bestela ez baita lortuko euskarak euskal gizartean bizirik irautea.

Bizitzako beste zenbait alorretan berrikuntza eta aurrerakuntza handiak izan ditugun arren (euskararen alor batzutan ere, bai, banakaren batzu), Euskararen aldeko Legea onartua izan zenetik bost urte igaron eta gero, oraindik larri gorritan agiri zaigu Komunitate Autonomikoaren barruko Administrazioan.

Ez da, oraindik, neurri egokirik hartu ez bertako langilegoa euskalduntzeko ez eta, horren ezean, langilego berri euskalduna eskuratzeko. Honetan, zenbait erakunde pribatuk baino gutxiago egin duela sarritan Administrazioak esan behar.

Euskaldunok, eskubidea baldin badugu ere, sarri askotan ezin ditugu Administrazioarekin ditugun harremanak euskaraz egin. Gaztelaniaz egitera behartzen gaituzte baina baino gehiagotan!

Agintariak ez dizkigute gure eskubideak garantizatzen

Premina gorriko izan diren gizarteko hainbat arazori aurre egin zaïen une honetan euskararen alde zerbait gehiago egiteko garaia dela uste dut. Lehentasunak zehazkiago taxutu beharra dago, kasu honetan (askok bestetara uste badu ere) «hil edo biziko» egoeraren aurkitzen gara eta.

Parra-parra erabili ohi da dirua honetan eta horretan, krisialdi gogorrean ez bageunde edo! Ondorioz, ez omen dago diruririk! Kultura alorrean bertan ere, makinatxo diru erabili da azken urte hauetan monumentu, liburutegi, artxibategi eta abar berriztatzen zein bestelako egintza ezberdinetan, hala nola, musikaemanaldi, jardunaldi, erakusketa, sariketa eta honelakoetan.

Garrantzitsuak direla guzti horiek? Ez dut ukatzen. Gutxi direla, gainera, alor horretan burutzen diren egintzak eta horretarako ematen diren diru laguntzak? behar bada, bai! Baina, **noiz izango ote «hil zorian dagoen» euskararen txanda?**

Patxi Urbarren